

FUNTSEZKO JARDUERAK

**ADMINISTRARITZA- ETA
KUDEAKETA-OINARRIAK**

ANJE DELGADO

DANEL GARCIA

YURENE FERNANDEZ

ESTIBALITZ NAVARRO

GARAZI PEREZ

JARDUERAK

Edozein negozio eredu aurrera eramateko, beharrezkoak dira zenbait jarduera burutzea. Balorezko proposamena garatzeko, bezeroarengana iristeko, bezeroarekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko. Funtsezko jarduerari dagokienez, horrela sailkatzen dira: produkzioa, arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak.

Produkzio jarduerari dagokienez, batetik, gure produktuaren diseinua hein batean garrantzitsua iruditzen zaigu, hau da, produktuaren estetika indartzea ez dugu ikusten beharrezkoa, barnealdean duena baizik (materialaren kalitatea). Bestetik, kantitatea kontrolatzea garrantzitsua dela ere iruditzen zaigu, edozein momentuan bezeroak gehiago eskatzen badu eta guk ez dugu kantitate nahikoa eskaintzeko guretzat arazo bat izan daiteke. Horrekin esan nahi dugu, guretzat funtsezkoa dela biltegian stocka izatea, izan ere, bezeroari saldu ahal izateko produkturik ez badugu ez gaituzte serio hartuko eta konpetentziaren produktua erosiko dute. Horrek bi kalte ekar dizkiguke: alde batetik, dirua galduko genuke eta bestetik, gure seriotasun eta jarraitasun ezagatik, ingurumena gehiago kaltetuko litzateke jendeak kaltegarriak diren kotoi-zotzak erosiko litzuzkeelako.

Horretaz gain, produktuaren kalitatea egokia izan behar du, izan ere, gure produktuak belarriak garbitzeko helburua du eta material hori ez bada kalitatezkoa, pertsona horren osasuna arriskuan jar dezake. Azkenik, produktu beraren entrega garrantzitsua da, hau da, guretzat oso garrantzitsua da produktua entrega epearen barruan iristea eta horrekin batera egoera onean iristea salmenta puntu edo biltegiatara. Bi hauek ez baditugu betetzen gure enpresari galerak ekarriko dizkio.

Arazoak konpontzeko jarduerari dagokienez, gure produktu guztiek kalitate-kontrola pasa behar dute bezeroarengana iritsi baino lehen. Gerta daiteke hortaz arduratzen den langileari ustekabez produkturen bat aztertu gabe uztea eta bezeroari egoera txarrean edota osasunarentzat kaltegarria izan daitekeen produktua saltzea. Hori gertatuko balitz, prest egon beharko ginatke salaketa bati aurre egiteko eta aholkularitza baten laguntza beharko genuke. Esaterako, aseguru mediku bat izan beharko genuke, bezeroaren kalte-ordaina ordaintzeko. Gainera gure enpresak, beste enpresak bezala, ezagutzaren gestioa eta etengabeko prestakuntza behar du.

Plataforma eta sareko jarduerari dagokienez, plataforma teknologiko eta internet bidez enpresetan dira nagusi. Bertan jarduera desberdinak desberdintzen dira. Lehenik eta behin, plataformaren gestioa. Gurea Internet bidez kontrolatuko dugu: salmentak, aurrekontua, gastuak,... hainbat programa informatikoren bidez egin eta jasoko ditugu. Horretarako, oso beharrezkoa izango zaigu etengabeko mantenua izatea. Hori gauzatu ahal izateko funtsezkoak zaizkigu informatikariak edota programa hauetan konkretuki adituak direnak. Gainera, gure plataforma hainbat modutara promozionatuko dugu: lehenik eta behin, Internet bidez eta bigarrenik, supermerkatuek kaleratzen dituzten publizitate-liburuxketan eta denda txikietan.

Bestalde, oso garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen jarduerak identifikatzea eta egitea. Bestelako enpresak kontratatatu daitezke jarduera jakin batzuk egiteko, baina funtsezko jarduerak ezin dira kanpoko enpresen esku utzi, kalteak ekarri ahal dizkiotelako. Gure kasuan, berez ez genuke kalterik izan beharko, hasiera batean ez

dugulako bestelako enpresarik kontratatzeke asmorik, horrek gure irabaziak banatzea dakarrelako eta txikiak badira oraindik txikiagoak izango direlako. Egia da gure produktuak arrakasta izango balu, jendea kontratatzen hasi beharko ginatekeela, izan ere, bost pertsonen artean ezin da dena egin. Garraiolariak beharko genituzke, baita kontableak, baita produktua egoera onean ateratzen dela ziurtatuko duten langileak, hau da, kalitate-kontrola egiten duten langileak. Labur, asko dira kontratatu beharko genituzkeen langileak eta horrek irabaziak gehiagoren artean banatzea dakar.

Beste alde batetik, badira kanpoko enpresa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak, hau da, lan batzuk guk bertan kontratatu ditzakegun langileek egin ditzakete, baina beste batzuk kanpo enpresek kontratatuak dituzten langileek egiten dituzte. Horietako bat, garbiketa-zerbitzuak dira. Zehazki, guk ez dugu aukeratzen nor garbituko duen gure enpresa, azpikontratatuak izango genukeen enpresak erabakiko luke zein langile bidali gure enpresa garbitzera. Beti ere, kontuan hartu behar da, zeregin hauek ez diotela balio erantsirik ematen gure enpresari. Gure enpresak duen balioa, duen hori da eta ez du balio erantsirik izango garbiketarako, esaterako, kanpoko enpresa bat azpikontratatzeko badugu.

Anje Delgado, Danel Garcia, Yurene Fernandez, Estibalitz Navarro eta Garazi Perez.